



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 28koa. Beraren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio berariaz erantzuteko sustatzaile baten erreklamazio bati, urbanizazio obra batzuetatik zorretan zeuden diru-zenbateko batzuen ingurukoa.

Aurrekariak

1. Promociones Hermanos Unzaga merkataritza sozietateak azaldu digu Laudioko Udalari 2010eko urtarrilean egin zion erreklamazioak ez duela erantzunik jaso. Erreklamazio horretan administrazio horrek zor zion dirua ordaintzeko eskatu zuen enpresak.

Erreklamazio horren xedea da Virgen del Carmen 9. eta 11.ean dauden eraikinen inguruan urbanizazio gastuen diru-zenbatekoak ordaintzeko eskatzea. Gastu horiek udalari zegozkion baina enpresa honek ordaindu zituen.

Batetik, Virgen del Carmen kaleko 9. zenbakidun eraikinean beharrezko hirigintza zerbitzuak sistema orokorrekin lotzeko egin diren urbanizazio obren kostua eskatu du enpresak.

Bestetik, Virgen del Carmen kaleko 9. eta 11. eraikinen urbanizazio osagarriko obraren kostua erreklamatu du. Obra hori ARV26A banaketa aldeko A eta C burutzapen unitateetako urbanizazioko eta lurpeko aparkaleku publikoa eraikitzeko obrako proiektuaren barruan zegoen.

Obrak burutu eta onartu dira. Udalak urbanizazioa 2009ko irailaren 11n jaso zuen eta sustatzaileak etxebizitzak eta garajeak lehen aldiz erabiltzeko lizentziak eskuratu zituen. Era berean, erreklamazio egileak uste du zordundutako kontzeptu hauek udalak berak aitortu dituela.

Zordundutako zenbatekoa kobratzeko asmoz, 2010eko urtarrilaren 13an eskatu zuen, zerbitzu teknikoaren txostenaren ondoren, udalak diru-zenbateko bat ordaintzeko, egindako urbanizazio obretatik. 2010eko apirilaren 12ko eta 16ko idazkien bidez eskaera hori errepikatu zuen.

Haien idazkian udal arkitektoak 2010eko abuztuaren 12an egin zuen txostena aipatu zuten. Txosten horretan, erreklamatuak zenbatekoak zuzendu ziren arren, udalak dirua ordaindu behar duela onartu zen.

2010eko azaroaren 2an, aipatuak enpresak erakunde honengana jo zuen, azaltzeko denbora luzea igaro den arren eskaerak ez duela idatzizko erantzunik jaso. Horregatik, kexa espedientea hasteko eskatu zuen.





2. 2010eko azaroaren 19an erreklamazio hori izapidetzea onartu genuen eta Laudioko Udalari informazioa eskatu genion, egindako eskaerari erantzuteko egin zituen udal jarduketei buruz. Gai honetaz hartutako udal erabakien kopia ere eskatu genion.

Gure eskaerari erantzuteko, udal horrek 2010eko abenduaren 30ean idazkia bidali zigun. Bertan, gai honetaz dagoen dokumentazioa erantsi zigun.

Informazio horretan, udal arkitektoak 2010eko abenduaren 1ean egindako txostena sartu zen, 2010eko abuztuan egindako berretsi zuena. Txosten horretan, erreklamaturako zenbatekoak zuzendu ziren arren, udalak dirua ordaindu behar duela onartu zen, urbanizazio osagarriko kostuak ordaintzeko.

Udalak bidalitako informazioaren barruan ez dago kexa egin duen enpresak eskatutako ordainketari erantzuten dion jarduketarik edo udal erabakirik, kexa hori erreklamazioaren zio nagusia izanik.

Gerora, 2011ko urtarrilean erreklamatuak errepikatu zuen ez dutela erantzunik jaso eta azaldu zuen, behin betiko diru-zenbatekoaren inguruan adostasunik egon ez arren, udalak eskaerari berariaz erantzun behar diola.

Informazio hau ikusita eta kexa egin dutenek alegatutako gainerako inguruabarrak kontuan izanik, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

Gogoetak

1. Kexa honen xedearen kausa da enpresa sustatzaileak egindako kexak ez duela erantzunik jaso. Kexa horretan, diru-zenbateko batzuk eskatu zituen, Virgen del Carmen kaleko x eta x. zenbakietan dauden eraikinen inguruan egin zituen urbanizazio gastuengatik, ez baitzioten ezer ordaindu. Obrak egitea udalari zegokion, baina enpresa honek egin zituen.

Udalak Arartekoari emandako erantzunean, udal arkitektoaren txosten bat bakarrik agertzen da. Txosten horretan, udalak gastuak ordaindu beharra onartzen da. Baina ez da agertzen 2010eko urtarrileko erreklamazioaren berariazko erantzunik, gerora bi aldiz errepikatu dena.

2. Abiapuntu gisa, gogorarazi behar dugu administrazio publikoak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera.





Horrela, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan betebeharrak hori berariaz jasotzen da, administrazio publiko guztientzat.

Arau honetako zioen azalpenak hau agintzen du: *“lege honen helburua ez da administrazioaren jarduerarik ezari izaera positiboa ematea partikularrak hari zuzentzen zaizkionean. Administrazioaren jarduerarik ezaren izaera positiboa legearen benetako helburua betetzen ez denean ezartzen den bermea da; legearen benetako helburua herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna jasotzea eta hori ezarritako epean jasotzea da. Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, Administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezen bermatzen du.”*

Aipatu behar dugu administrazio horrek behar bezala izapidetu behar dituela biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Era berean, azpimarratu behar da erantzuteko betebeharrak hor dirauela, ebazteko epea iraungi arren, eta diziplina erantzukizuna eragin diezaiokete ebazteaz arduratzen den organoaren titularrari.

3. Arartekoak hainbatetan salatu du administrazio isiltasuna oso arriskutsua dela. Izan ere, biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen euren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta arartekoaren erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua biztanleei ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).

Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikulua horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebeharrak hori honakoen bidez zehazten da: erreklamazioa jaso izana adierazteko betebeharra, zerbitzu





eskudunari bidaltzeko betebeharra eta aurkeztutako erreklamazioei arrazoizko epean erantzuteko betebeharra.

Horiek horrela, arartekoak behin eta berriro nabarmentzen du udalak kexagileen idazkiei al bait arinen erantzuteko betebeharra duela.

4. Kasu honetan, zerbitzu teknikoen 2010eko abuztuko txostena jaso ondoren, udalak espedientearekin jarraitu beharko luke, gehiago atzeratu gabe, eta erreklamazioa ebatzi. Zorra aitortuz gero, udalak zordundutako zenbatekoen ordainketa agindu behar du, tokiko ogasunen foru arauan ezarritako terminoetan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

2/2011 GOMENDIOA, otsailaren 28koa, Laudioko Udalarari egina

Gehiago luzatu gabe, erreklamazio egileak urbanizazio gastuak itzultzeko egin dion eskaerari erantzutea eta, bidezkoa bada, zordundutako zenbatekoak ordaintzeko agintzea.

